

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2020ko kirolaren arloko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 510704

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsultaa daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kirolaren arloko elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik, legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez udalerrian errolatuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Udalaren eskumeneko jarduera eta zerbitzuen osagarri edo ordezkoko diren kirol-jarduerak egiten laguntzea da diru-laguntza honen helburua.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko maiatzaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 26.000 eurokoa da.

Erakunde bakoitzak eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da kontuan hartutako aurrekontuaren ehuneko 50 baino handiagoa izan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2020ko maiatzaren 14a

Alkatea

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA